

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

(General Promotion Plan for the Use of the Basque Language)



AIZPURUA TELLERIA, Xabier

Hizkuntza Sailburuordetzako Ikerketa eta Informaziorako zuzendaria

Eusko Jaurlaritza

Wellingtongo dukea, 2

01010 Gasteiz

Kultura@ej-gv.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 161-164]

E

usko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian ditu jarrita bere begiak, euskararen normalkuntzan eman beharreko pausoak bateratu eta aurrera eramateko. Gizarteak euskara sustatzeko abian jarri dituen eta jarriko dituen planen gidari izatea da bere helburu nagusia.

Z

a Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco mima con especial interés el Plan General de Promoción del Uso del Euskara, programa rector que trata de unificar todos los planes existentes y por haber en torno a la normalización lingüística.

Z

e Vice-Conseiller en Politique Linguistique du Gouvernement Basque prête une attention toute spéciale au Plan Général de Promotion de l'Emploi de l'Euskera, programme rector qui tente d'unifier tous les plans existants et à venir sur la normalisation linguistique.

1999-2002 legealdiko Eusko Jaurlaritzaren eratzeko izenpeturiko Koalizio Akordioaren ezarritakoaren arabera, hizkuntza-politikari dagokionez, helbururik garrantzitsuenak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzea da, adostasun eta partaidetzarik zabalenean oinarritzen den hizkuntza-politikaren ardatza baita.

Hasteko, Josune Ariztondo, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordearen izenean eskerrak eman nahi dizkiet jardunaldi hauen antolatzaileei hona etortzeko dei egiteagatik. Egunotan, Euskal Herritik kanpo denez, tamalez, ezin etorri izan da bera hona eta ni nator bere izenean. Horrenbestez, gaurko gaia azaltzeko joan zen ekainaren 24an berak eta M. Carmen Garmendia, Kultura sailburuak, Eusko Legebiltzarrean egin zuten agerraldia izango dut ardatz nagusi¹.

1998ko uztailaren 28an, Gobernu Kontseiluak onartu eta bere egin zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskararen Aholku Batzordearen lankidetzaz burutu eta urte bereko ekainaren 24an Osoko Bilkuran onarturiko plana.

Plan honek gizarte-sektoreetatik zein Herri Administrazioari hainbat arlotatik aspalditik egindako eskariari erantzuna ematen dio. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia euskararen normalizazioari begira gauzaturiko egitarau nahiz arlokako plan desberdinak barneratzen dituen abiaburu-plana da eta, beraz, plan nagusi estrategikoa. Batetik, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika bideratuko duten lerro nagusiak definitzeko lanabesa eta oinarritzeko erreferentzia izan nahi du eta, bestetik, administrazio bakoitzak, hizkuntza-politikaren esparruan berariazko jarduketak zehaztu, onartu eta gauzatzeko orduan, hartuko duen gutxieneko oinarria. Azkenik, planak gizarte-ekimenarekiko lankidetzara bideratu nahi du.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusi honek helburu zabalak ditu, baina betetzeko moduko helburuak. Euskararen Aholku Batzordeko kideek metodologia zorrotzaz egin dute, taxutu eta onartzeko prozesu osoan nagusi izan diren irizpide eta konbikzio politikoak oinarri hartuta. Alderdi horietako bakoitzari buruzko azalpen laburra egingo dut, jarraian.

Helburuei dagokionez, esan beharrekoa dugu, lehenik eta behin, Aholku Batzorde eraberrituak oinarri sendoa aurkitu zuela bere lanari ekitean. Ordurako, aldendua genuen euskararen egoerari eta etorkizunari buruzko larritasuna; duela hogeita urte, Gernikako Estatutuan euskara hizkuntza ofizial izendatu zenean, geneukan larritasun hura hain zuzen. Harrezkero Batzordekideek ez zuten, behintzat, euskara iraunarazteko borrokatu

beharko, hizkuntza hau hil hurren izan genuen 70eko hamarkada hartan izan zitekeen bezala. Euskararen Aholku Batzorde berria Plana taxutzen hasi zenerako, euskara arrakastaz ezarrita zegoen hezkuntzan, batez ere unibertsitatez kanpokoan; sartua zen hedabideetan, batik bat publikoetan; herri-erakundeetan baziren jadanik euskara sustatzeko planak; kalitate bikaina eta zabalkunde handia lortuak zituen literaturako adierazpideetan; eta —are garrantzitsuago— euskara jakiteak prestigio soziala eta intelektuala zekarren, eta egiaz elebidun izatea zen herritar gehienek lortu nahi zuten eta epe luzera lor zezaketen helburua. Planak berak birritan esaten duenez, euskara, historian estreinako aldiz, ez doa atzera, aurrera baizik, gizartearen eta lurretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko 1981eko eta 1996ko zentsuek euskarari buruz bildutako datuetan erakusten digutenez, euskarak azken urteotan izan duen aurrerakada begibistakoa da:

- 14 urte bitarteko gazteen artean, euskaldunak erdaldun elebakarrak baino ia hiru aldiz gehiago dira, batetik, eta

- bestetik, lurraldeei begiratuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoan jadanik ez dago euskaldunik gabeko udalerririk; bereziki aipatzeko modukoa da euskarak Arabako hegoaldean zein Bizkaiko mendebaldean izan duen berreskuratzea.

Aholku batzordekideek burutu beharreko lehenengo egitekoa, hortaz, jadanik eginda zegoen lana balioztatzea zen, hasitako jardueretan indarguneak eta ahuleziak zein ziren atzemateko helburuz. Balioztatze-lan horrek, euskararen transmisio- eta erabilera-arlo guztiak aintzat hartuta, Planaren lehen zati osoa betetzen du.

Batzordekideek aurrerapenak agerian ipini dituzte, baina hutsarteak eta estropezuak ezkutatu gabe. Analiaren zorrotasun hori da, bigarren zatian emandako proposamenek bideragarriak izateko duten bermerik onena.

Planaren bigarren zatia, bada, lehenengo zatian hizkuntzaren erabilera balioztatze erabili diren arlo bereberri jarraiki analisisa xehatuz, datorren hamar urtean egin beharreko jardueretarako proposamen zehatzak egiten ditu, zenbatu eta neurtu ere egin daitezkeen helburuak ipiniz. Proposamen horiek iraganean lortutakoa baino harago doaz, eta euskararen transmisioak, erabilerak nahiz kalitateak dakartzaten arazoetan barneratzen saiatzen dira; beti ere, kontuan izanik gaur egungo munduan hizkuntza —edozein hizkuntza— erabat erabilgarritasunaren menpe dagoela, eta hizkuntzaren erabilerari eutsi ezineko indarraz eragiten dioten teknologia berrien menpe. Ildo horretan, Planak, nolabait esateko, ez du lurralderik utzi nahi euskararen eremutik eta

1. Edonola ere, hitzaldia eman zenez geroztik, jada, sei hilabete igaro direnez, orduan esanikoak nolabait eguneratzeko iruzkin zenbait txertatuko ditut tarteka.

erabileratik at; hizkuntza normalizatua izatera iristea nahi dugunez, pertsonaren eta gizartearen bizitzako alderdi guztietan dagoeneko ohiko komunikazio hizkuntza balitz bezala jokatu behar dugu harekin.

Gogora ekarri nahi nituzke Jose Antonio Ardanza lehendakari ohiak planaren atarikoan, "Bete daitekeen plana" izenburupean, egindako gogoetak: "Nire ustez, boluntarismoan jausi gabe, asmo handiak izateak, hain zuzen ere, eragingo dio euskarari, edo —zehatzago esan dezagun— euskalduneriari, erabilera eragozten duten konplexu guztiak kentzea eta bere hizkuntza arlo guztietan benetako komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea. Ohargarria da, alde horretatik, eta onerako izan ere, Planaren egileek, euskara gorde beharreko "ondare" gisa ikusten duen ohiko ikuspegia alde batera utzi, eta subjektutat euskaldunari begiratu izana, hau da, euskaraz mintzo denari begiratu izana. Pertsonari begiratzen dion ikuspegi hori garbi ageri da hasieratik, proposamenen funtsezko helburua finkatzen den unetik beretik. Izan ere, helburu nagusia honela jaso da, "...euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea... maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean". Hizkuntza honetan mintzo dena, hartara, normalizazioaren ia subjektu bakarra izango da, eta auzia, ondorioz, hizkuntzaren jabe diren gizakiei dagozkien eskubide subjektiboen esparruan izango da.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak hiru helburu estrategiko hartzen ditu bere baitan eta 17 jarduketara-arlo estrategikotan banatzen dira:

Lehenengoa euskara, belaunetaz belaun eta etenik gabe ondorengoetaraztea da, familia, eskola eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez.

Bigarrenak produktuak eta zerbitzuak euskaraz eskaintzeko beharra planteatzen du, gizarte-erabilera ahalbideratze aldera. Datozen hamar urteotako erronkarik nagusiena, belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegina eta gaztelania bezain baliozko egitean datza. Horretarako, euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik harantzago eraman behar da beste erabilera-eremuetara zabaldu arte, esaterako administrazioa, gune euskaldunenetara, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietara, lan-arloa, aisialdira, kirolera eta erlijiora.

Hirugarren helburuak azpimarratzen du hizkuntza eroso eta erraz hitz egiteko, etengabe elikatu egin behar dela, kultura-ekoizpenaren bidez, komunikabideen bidez (prentsa idatzia, irratia, telebista, argitalpenak, publizitatea) eta euskararen corpusaren plangintzaren bidez.

Alabaina, Planaren asmo diren helburuak garrantzi handikoak izanagatik, garrantzi berekoa dugu Planean jarraitutako metodologia ere. Orain, guztien partehartzeaz lan egin izana ohartarazi nahi

du, horrela Plana aho batez onartu ahal izatea ahalbideratu baitute. Hori ez da inondik ere huskeria, politikan eta gizartearen hainbesteko sentiberatasuna sorrarazi ohi duen gai honetan. Euskararen Aholku Batzordean bildu direnen sentikortasunak askotarikoak direla jakinik, gorestekoa da batzordekideek elkar hartu eta bat etortzeko izan duten ahalmena. Horixe da, berriz ere, bermerik onena, Plana aurrera ateratzeko ez ezik, plan osatzaile eta bateratzailea izateko ere. Gure iritzira, gure gizarteak ondo barneratu du elebitasuna politikako liskarretatik kanpo geratu behar dela, eta hitzunen eskubideak ezagutu, errespetatu eta sustatu egin behar direla. Denek onartzen dute, gainera, euskaldunek, gutxiengoa direlako eta zailtasunez beteriko historia luzea izan dutelako, bultzada berezia merezi dutela, beren hizkuntza-eskubideak gero eta berdintasun handiagoko egoeran erabiltzeko aukera izan dezaten. Plana aho batez onartu izana gizartearen kontzientzia horren erakusgarri da; eta, tentua eta erabakitasuna zuhur uztartuz, kontzientzia hori gauzatzen saiatzen da. Horrela, guztien eskubideak errespetatzen dira, eta gutxiengoaren eskubideak era positiboan sustatzen. Politika horri "bereizketa positiboa" deritzo, eta bere goz onartu du Euskadiko gizarte osoak.

Azkenik, labur aipatuko ditut Plana behin betiko onartu arte Plana taxutzeko jarraibide izan diren irizpideak. Honako hauek dira: planteamendu demokratikoak errespetatzea, ahulenaren aldeko ekintza positiboa egitea, euskara hizkuntza propiotzat ezagutzea eta botere publikoak eta gizarte-ekimena elkarren osagarri izatea.

Alde batera utziko ditut, ez hutsalak direlako, lehendabiziko hirurak, baina argi azaldu nahi dut laugarrenaren garrantzia, labur-labur. Hizkuntza baten aurrerakuntza, edozein hizkuntza dela ere, hitzunen menpe dago batik bat. Erakunde publikoek, eurek bakarrik, ezin dute hizkuntza-komunikazio tresna bizia izan dadin hura garatu eta sustatu. Noraezekoa da euskaldunek eraturako gizarte-taldeen partehartze aktiboa, eta partehartze hori betiere ondo hartuko dute erakunde publikoek. Izan ere, plana egin eta onartu duen Euskararen Aholku Batzordea gizartearen partehartze horren erakusgarri esanguratsu eta askotarikoa baino ez da.

Hala ere, erakunde publikoek ez lukete ahaztu behar, horregatik, euren gain duten erantzukizuna, bai plan zuzentzaileak taxutzeari dagokionez, eta bai herritarrei edozein arlotan erabakitzen duten hizkuntzan mintzatzeko eskubidea bermatu ahal izateko neurriak sustatzeari dagokionez. Erakunde publikoen betebeharrak utziezina da, hiritar guztien legezko ordezkari diren aldetik, guztien hizkuntza-eskubideak zehatz errespetatu daitezen zaintzea, eta eskubide horiek benetan eta berdintasunez aplikatu daitezen sustatzea.

Lankidetzako ingurune horretan, alde guztiek euren eskubideak eta eginbeharrak gogo onez

“ Euskararen Aholku Batzordean bildu direnen sentikortasunak askotarikoak direla jakinik, gorestekoa da batzordekideek elkar hartu eta bat etortzeko izan duten ahalmena ”

betetzen dituztelarik, euskarak gero eta atxikimendu aktiboagoak eta arduratsuagoak piztu ahal izango ditu, eta guztiok nahi dugun eta legediaren beraren asmoa den elebitasuneko egoera hori iritsiko da.

Hori horrela, datozen urteotarako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren lehentasunetako bat izango da Plan Nagusia kudeatzea, hau da, Planaren komunikazioa, jarraipena eta kontrola, eta ebaluazioa egitea. Gogorazi nahi nuke hemen, 1999-2002 legealdiko gobernua eratzeko izenpeturiko Koalizio Akordioan (1.3 D atala) ezarritakoaren arabera, hizkuntza-politikari dagokionez, helbururik garrantzitsuenak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzea dela, adostasun eta partaidetzarik zabalenean oinarritzen den hizkuntza-politikaren ardatza baita.

Planaren zabalkundea egingo da; "Ad hoc"-eko aurkezpenak egingo zaizkie zuzenean inplikaturik dauden agente publiko nahiz pribatu guztiei, eta bereziki jakinaraziko zaio bakoitzari zein izango den bere egitekoa, planaren garapena dela eta. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak erakunde bakoitzari eskatuko dio Plana garatze aldera gauzatuko dituen neurrien eta ekintzen berri emateko; horrek ekar lezake indarrean dauden hainbat egitarau berrikustea edo jarduketa-egitarau berriak abian jartzea².

Bestalde, Plana kudeatzeak Euskararen Aholku Batzordeko Lege-Garapenerako Batzorde-atalaren eta Herri Aginteen Koordinazio Batzordearen lana dinamizatzea eta koordinatzea ekarriko ditu. Gainera, Eusko Legebiltzarrak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eztabaidatzeko 1999ko abenduaren 10ean egin zuen Osoko Bilkuran aipatu plan nagusia berretsita egin du eta, lehengoz gain, egiteko zehatz berriak ezarri dizkie Lege-Garapenerako Batzorde Atalari zein Herri-Agintek Koordinatzeko Batzordeari.

Azken batzorde horretan Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek eta hiru hiriburuetako udalek dute ordezkariak. Herri Agintek Koordinatzeko Batzordeak hizkuntzaren normalizazioan erabilitako giza eta diru-baliabideei buruz egindako azterketak argi eta garbi erakusten du behar-beharrezkoa dela EAEko erakundeen arteko koordinazioa areagotzeko ahaleginak egitea; horrela, egun dauden baliabideak hobeto erabili ahal izango dira, bereziki, ondoko gai hauetan: itzulpengintza-politika; hizkuntza-irizpideak adostea, administrazioek eskaintzen dituzte zerbitzuetan, argitalpenetan, dirulaguntza-deialdietan, erosketa- eta kontratazio-politikan eta langileen etengabeko prestakuntza-politikan; funtzionarioen euskalduntze-alfabetatzea; euskararen sustapena; eta corpusaren plangintza eta hizkuntzen industriak.

Horretaz gainera, aipatutako azterketatik atera daitekeen beste ondorio bat da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia ezarritako lehentasuneko helburuak erdietsi ahal izateko, ezinbestekoa dela gaur eguneko baliabideak urte urte areagotuz joatea. Izan ere, egun dauden giza eta diru-baliabideak hobetze aldera gauzatzen den erakundeen arteko koordinazioak ez du berez ziurtatzen Plana betetzeko behar diren oinarriko baliabideak nahikoak izango direnik. Horrela, Herri Agintek Koordinatzeko Batzordeari, urtebeteko epean, beharrezkoak izango diren gutxienezko giza eta diru-baliabideei buruzko proposamen zehaztua (ehunekoetan aurrekontu arruntarekiko) aurkezteko manua eman zaio³.

Hori guztia Euskararen Aholku Batzordeari helaraziko zaio bere lan-batzordeek azterketa eta ebaluazioa egin ditzaten (Batzorde Iraunkorra, Planaren Jarraipenerako hiru Batzordeak eta Batzorde Osoa), Plan Nagusia etengabe eguneratu eta hobetzeko.

Nire hizketaldia bukatzeko, Jose Antonio Ardanza lehendakari ohiak Planaren atarikoan egiten digun gogoeta irakurriko dizuet: "Gaurko euskaldunen belaunaldiari, milurteko gorabeheren ondoren, hizkuntza-ondare berezia iritsi zaigu. Bizitza egokitu zaigun kultur mundu orokortuan, ondare horrekiko aukera transzendentalari erantzun behar diogu. Aukerarik errazena uniformizazio gisako orokortasunari men egitea litzateke; horixe litzateke arduragabekeriak latzena gure aurrekoekiko, gure seme-alabekiko eta gure buruarekiko. Arduraz jokatu behar dugu, zailena hori bada ere, eta horrek dakar gure hizkuntza-berezitasuna nahitaez globalizaturiko munduaren aniztasunerako ekarpen modura ulertzea, eta ez ezinbestez galtzera kondenatuta dagoen zer edo zer bezala. Euskal hiztun asko ez bagara ere, mundu globalizatu horretako kultura murriztu egingo litzateke gure hizkuntza hitz egingo ez balitz. Gurea, euskaldunona da, beraz, giza kultura aberastearen edo murriztearen erantzukizuna. Jakin, badakit, aberastearen aldeko apustua egingo duguna."

2. Esate baterako, Eusko Jaurlaritzako Sail bakoitzari jakinarazi zaio jada zer egin behar duen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia burutzeko. Halaber, Gipuzkoako zein Bizkaiko Foru Aldundietan ere plan burutzeko prozesua martxan jarria izan da.
3. Adibide soil bat jartzearen, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2000. urteko aurrekontuak aurreko urtearekiko %34ko igoera izan du.

